# Xedapen Orokorrak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**3098**

157/2010 DEKRETUA, ekainaren 8koa, zeinen bidez nekazaritza eta elikagaigintzako berrikuntzaforoaren osaera eta funtzionamendu-erregimena arautzen baitira.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea 2008ko abenduaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (250. zenbakia). Bada, lege horren 67. artikuluaren bidez, Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroa sortu zen, berrikuntzako eragileen artean, elkarreragina errazteko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-arloan eskumena duen sailaren kide anitzeko organo gisa eratu da, nekazaritza- eta elikagaigintza-eremuetan berrikuntzaren gaineko aholkularitza emateko eta hura sustatzeko. Nekazaritza eta elikagaigintza kontzeptuak abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 4.1 artikuluan definitu dira. Honakoa ezartzen du: nekazaritza kontzeptuak laborantza, abeltzaintza eta basogintza biltzen ditu; elikagaigintza kontzeptuaren barnean sartzen da nekazaritza, arrantza, akuikultura, arrain-haztegi, zinegetika- eta mikologia-jardueratik lortutako produktuak edo beste jatorri natural batekoak ekoitzi, eraldatu, ontziratu eta merkaturatzea (4.20 artikulua).

Manu berak ezartzen du bere osaera eta zereginak erregelamenduz zehaztuko direla. Hori dela eta, dekretu honen helburua da aipatutako legean jasotako legegintzako manua betetzea eta Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroaren osaera eta funtzionamendu-erregimena arautzea. Osaera horretan, 67. artikuluan ezarritako gutxieneko baldintzak bete dira: aipatutako Foroan, besteak beste, aipatutako saileko, foru-aldundietako, sektoreko eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkariek parte hartuko dute.

Dekretu hau egiteko, eragindako administrazioei eta lan-munduko eta ekonomia-arloko ordezkariei egin zaie kontsulta. Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutako tramiteak bete dira.

Ondorioz, Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluan xedatutakoari eta Aholku Batzorde Juridikoari jarraiki, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez,

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**3098**

DECRETO 157/2010, de 8 de junio, por el que se regula la composición y el regimen de funcionamiento del Foro de Innovación Agraria y Alimentaria.

La Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 250 de 31 de diciembre de 2008 crea, en su artículo 67, el Foro de Innovación Agraria y Alimentaria con el objetivo de facilitar la interacción entre los agentes de la innovación. Se crea como órgano colegiado del departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco competente en materia agraria, para el asesoramiento e impulso de la innovación en los campos agrario y alimentario. Los conceptos agrario y alimentario han quedado definidos en la propia Ley 17/2008, de 23 de diciembre que, en el artículo 4.1 establece que el concepto agrario incluye lo agrícola, lo ganadero y lo forestal, y el concepto alimentario incluye lo relativo a la producción, transformación, envasado y comercialización de los alimentos procedentes en origen de lo agrario, de la pesca, de la acuicultura, de los cultivos marinos, de la actividad cinegética y de la micológica, o de otros orígenes naturales (artículo 4.20).

El mismo precepto establece que su composición y funciones se determinarán reglamentariamente. Por ello, es objeto de este decreto cumplir con el mandato legislativo contenido en la citada Ley y regular la composición y régimen de funcionamiento del Foro de Innovación Agraria y Alimentaria. En dicha composición se han respetado los mínimos fijados en el artículo 67 que establece que en el citado Foro participarán, entre otros, representantes del citado departamento, de las diputaciones forales, del sector y de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

En la elaboración del presente Decreto, han sido consultadas las administraciones afectadas, los interlocutores y las interlocutoras sociales y económicos afectados. Asimismo se han cumplido los trámites dispuestos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi a propuesta de la Consejera de

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko ekainaren 8an egindako bilkuran gaia eztabaidatu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Izaera eta atxikipena.

1.– Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroa kide anitzeko organoa da, nekazaritza- eta elikagaigintza-eremuetan berrikuntzaren gaineko aholkularitza emateko eta hura sustatzeko eta nekazaritza- eta elikagaigintza-ikerketaren inguruan jarduteko ildo orokorrak identifikatzeko, bai eta gobernuaren nekazaritza- eta elikagaigintza-politiken helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduerak identifikatzeko ere.

2.– Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroa Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzari atxikitzen zaio. Atxikipen honek berekin dakar aipatutako sail horren hierarkia-egituran sartzea.

***2. artikulua.***– Eginkizunak.

Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroaren eginkizunak honakoak dira:

a) Ikerketarako, teknologia garapenerako eta nekazaritza- eta elikagaigintza-berrikuntzarako ildo estrategiko eta jarduera nagusiak proposatzea, kasuan kasuko sektoreen beharrei aurre egiteko.

b) Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza- eta elikagaigintza-arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan, ikerketa, garapen eta berrikuntzako sektore-planak egitea, ikerketan, teknologia-garapenean eta nekazaritza- eta elikagaigintza-berrikuntzan jarduerak egokiro kudeatu eta planifikatzeko, eta sektoreko eskariei aurre egiteko jarduera-ildo nagusi eta estrategikoak zehazteko.

c) Gizarte-eragileei berrikuntzarekin lotura duten jarduerak gomendatzea eta proposatzea.

d) Gizarteari berrikuntzaren eremuan garrantzitsutzat jotzen dituen alderdiak jakinarazi, zabaldu eta hurbiltzea.

e) Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza- eta elikagaigintza-arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan, Euskadiko irakaskuntza-erakundeak eta zientzia- eta teknologia-erakundeak sustatzea, nekazaritza- eta elikagaigintza-arloan ikerketarako jarduerak gara ditzaten; gainera, horien zientzia- eta teknologia-maila mantendu eta hobetzen dela eta sektorean sortutako zientzia- eta teknologia-arloko eskariari erantzuten diotela bermatzeaz arduratuko da.

***3. artikulua.***– Osaera.

1.– Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroa presidentetzan jardungo duen pertsona batek,

Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 8 de junio de 2010,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Naturaleza y adscripción.

1.– El Foro de Innovación Agraria y Alimentaria es un órgano colegiado para el asesoramiento e impulso de la innovación en los campos agrario, y alimentario y para la identificación de las líneas generales de actuación en materia de investigación agraria y alimentaria, así como de todas aquellas actuaciones que resulten necesarias para la consecución de los objetivos de las políticas agraria y alimentaria del Gobierno.

2.– El Foro de Innovación Agraria y Alimentaria se adscribe a la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. Esta adscripción conlleva la integración en la estructura jerárquica del citado Departamento.

***Artículo 2.***– Funciones.

Son funciones del Foro de Innovación Agraria y Alimentaria:

a) Proponer las líneas estratégicas y las actuaciones prioritarias de investigación, desarrollo tecnológico e innovación agraria, y alimentaria, con el objeto de dar respuesta a las necesidades de los sectores correspondientes

b) Elaborar, en colaboración con el departamento de la Administración General de la Comunidad competente en materia agraria y alimentaria, los planes sectoriales de investigación, desarrollo e innovación, con el fin de gestionar y planificar adecuadamente las actividades en investigación, desarrollo tecnológico e innovación agraria y alimentaria, y de definir las líneas de actuaciones prioritarias y estratégicas para dar respuesta a las demandas del sector.

c) Recomendar y proponer a los distintos agentes sociales actuaciones relacionadas con la innovación.

d) Comunicar, difundir y acercar a la sociedad aquellos aspectos que considere relevantes en el ámbito de la innovación.

e) Impulsar, en colaboración con el departamento de la Administración General de la Comunidad competente en materia agraria y alimentaria a las instituciones docentes y entes científico-tecnológicos de Euskadi para que desarrollen actividades de investigación en el área agraria y alimentaria, y velará por mantener y mejorar el nivel científico-tecnológico de los mismos y por garantizar la respuesta a la demanda científico-tecnológica generada desde el sector.

***Artículo 3.***– Composición.

1.– El Foro de Innovación Agraria y Alimentaria está integrado por una persona que ejerza la presi-

presidenteordetzan jardungo duen beste batek, idazkaritzako beste batek eta kide-izaera dutenek osatzen dute.

2.– Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroko kide izateak ez du ordainsaririk ekarriko, betiere, zerbitzuengatiko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta indarrean dagoen gainerako araudian xedatutakoari jarraiki kideei dagozkien dieta eta kalte-ordainei kalterik egin gabe.

***4. artikulua.***– Presidentetza.

Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroaren Presidentetza Arrantza eta Elikagaien Industriako sailburuordeari dagokio, eta honako eginkizunak bete beharko ditu:

a) Ohiko eta aparteko bilkuretarako deialdiak erabakitzea eta gai-zerrenda finkatzea; horretarako, kontuan hartuko dira, hala badagokio, gainerako kideek behar besteko denboraz aurkeztutako eskaerak.

b) Bilkuretako presidente izatea eta horiek ixtea, bai eta eztabaiden garapena moderatzea ere.

c) Bozketa ebaztea, berdinketa egonez gero.

d) Aktei eta erabakien ziurtagiriei oniritzia ematea.

e) Presidentetzari datxekion edozein ekintzatan jardutea.

***5. artikulua.***– Presidenteordetza.

Presidenteordetza Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariari dagokio, eta honako eginkizunak bete beharko ditu:

a) Presidentetza betetzen duena ordezkatzea, bere eskuduntza guztietan.

b) Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ordezkaritza-eginkizunak betetzea, baldin eta Presidentetzaren eginkizunak, ordezkaritza dela-eta, bete behar ez baditu.

***6. artikulua.***– Idazkaritza.

Presidenteak izendatuko du, bere saileko langileen artean, eta honako eginkizunak bete beharko ditu:

a) Bilkuretara joatea, ahotsa bai, baina botorik gabe.

b) Presidenteak aginduta, bilkuren deialdia egitea.

c) Gaiak bideratzeko prestatzea.

d) Idazkaritzari dagozkion bestelako eginkizunak.

e) Egindako bilkuren aktak idatzi eta egitea.

***7. artikulua.***– Kidearen izaera duten pertsonak.

1.– Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroko kideak honakoak dira:

dencia, una persona que ejerza la vicepresidencia, la que ejerza la secretaría y los que ostenten la condición de vocal.

2.– La pertenencia al Foro de Innovación Agraria y Alimentaria no dará lugar a retribución alguna, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que, con arreglo a lo fijado en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio y demás normativa vigente, correspondan a sus miembros.

***Artículo 4.***– Presidencia.

La Presidencia del Foro de Innovación Agraria y Alimentaria corresponderá al Viceconsejero o Viceconsejera de Pesca e Industrias Alimentarias, que tendrá como funciones:

a) Acordar las convocatorias de sesiones ordinarias y extraordinarias y la fijación del orden del día, teniendo en cuenta, en su caso, las peticiones de los demás miembros formuladas con la suficiente antelación.

b) Presidir y levantar las sesiones, así como moderar el desarrollo de los debates.

c) Dirimir la votación en caso de empate.

d) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos.

e) Ejercer cuantas acciones sean inherentes a su condición de Presidente.

***Artículo 5.***– Vicepresidencia.

La Vicepresidencia corresponderá al Director o Directora de Innovación e Industrias Alimentarias que tendrá como funciones:

a) Suplir a quien ostente la Presidencia en la totalidad de las atribuciones.

b) Ejercer las funciones de representante del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca cuando no asuma por suplencia las funciones de la Presidencia.

***Artículo 6.***– Secretaría.

Será nombrado por el Presidente o Presidenta de entre el personal de su Departamento y tendrá las siguientes funciones:

a) Asistir a las reuniones con voz pero sin voto.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones por orden del Presidente.

c) Preparar el despacho de los asuntos.

d) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de secretario o secretaria.

e) Redacción y levantamiento de las actas de las reuniones celebradas.

***Artículo 7.***– Personas que ostentan la condición de vocal.

1.– Son vocales del Foro de Innovación Agraria y Alimentaria:

a) Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzako titularra.

b) Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzako titularra.

c) Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko ordezkaria, gutxienez zuzendari-maila duena.

d) Lurralde historikoetako aldundi bakoitzeko ordezkari bat, beren gobernu-organoek izendatuta.

e) Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat.

f) Basque Culinary Center-eko ordezkari bat.

g) Lurralde historiko bakoitzeko, nekazaritza-ustiapenei aholku emateko erakunde onartuetako ordezkari bat; hori lurralde bakoitzean adostasunez izendatuko da.

h) Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundeko ordezkari bat.

i) Bizkaiko Kofradien Federazioko ordezkari bat.

j) Gipuzkoako Kofradien Federazioko ordezkari bat.

k) Alturako Arrain Ekoizleen Elkarteetako ordezkari bat.

l) Azti-Tecnaliako ordezkari bat.

m) Neiker-Tecnaliako ordezkari bat.

n) Euskadiko Elikaduraren Klusterreko ordezkari bat.

o) Euskadiko Nekazaritzako Kooperatiben Federazioko ordezkari bat.

p) Nekazaritzako Erakunde Profesionalen bi ordezkari.

2.– Kideak Arrantza eta Elikagaien Industriako sailburuordeak izendatuko ditu eta agintaritza 2 urtekoa izango da; gero berriro hautatu beharko dira edo berretsi egin beharko dira, bi urteko kargu-alditan.

***8. artikulua.***– Kideen eskubideak.

a) Deialdia aurrerapen nahikoarekin jasotzea; bertan, bilkuren gai-zerrenda eta gai horien gaineko informazioa jaso beharko dira.

b) Botoa emateko eskubidea erabiltzea eta, hala badagokio, botoaren zentzua eta justifikatzeko arrazoiak azaltzea.

c) Galderak eta eskaerak egitea.

a) La persona titular de la Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

b) La persona titular de la Dirección de Pesca y Acuicultura del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

c) Una persona representante del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, con rango mínimo de Director.

d) Una persona representante de cada una de las Diputaciones de los Territorios Históricos, designada por sus respectivos órganos de gobierno.

e) Una persona representante de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

f) Una persona representante de Basque Culinary Center.

g) Una persona representante, por cada Territorio Histórico, de las entidades reconocidas para el asesoramiento a las explotaciones agrarias, designada de común acuerdo en cada Territorio.

h) Una persona representante de la Confederación de Forestalistas del País Vasco.

i) Una persona representante de la Federación de Cofradías de Bizkaia.

j) Una persona representante de la Federación de Cofradías de Gipuzkoa.

k) Una persona representante de las Organizaciones de Productores de Pesca de Altura.

l) Una persona representante de Azti-Tecnalia.

m) Una persona representante de Neiker-Tecnalia.

n) Una persona representante del Cluster de la Alimentación de Euskadi.

o) Una persona representante de la Federación de Cooperativas Agrarias de Euskadi.

p) Dos personas representantes de las Organizaciones de Profesionales Agrarias.

2.– Los vocales serán nombrados por el Viceconsejeros de Pesca e Industrias Alimentarias y su mandato será de 2 años, debiendo ser reelegidos o ratificados en su cargo cada dos años.

***Artículo 8.***– Derechos de las personas vocales.

a) Recibir, con la antelación suficiente, la convocatoria conteniendo el orden del día de las reuniones y la información sobre los temas del mismo.

b) Ejercer su derecho al voto y expresar, en su caso, el sentido y motivos que lo justifican.

c) Formular ruegos y preguntas.

d) Kide-izaerari dagozkion bestelako eginkizunak.

***9. artikulua***.– Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroaren lan-taldeak.

Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroaren osoko bilkurak lan-taldeak sortu ahalko ditu, hala behar duten gaien gainean, beren eginkizunak betetzeko. Lan-talde horien eginkizunak Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroaren osoko bilkurak zehaztuko ditu eta, nolanahi ere, beren txosten, ponentzia edo proposamenak osoko bilkurak berretsi beharko ditu.

***10. artikulua***.– Informazioaren eta komunikazioen teknologia berriak.

Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroak, bilkurak prestatzeko lanetan, informazioaren eta komunikazioen teknologia berrien erabilera sustatuko du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroa osatuko duten pertsonak izendatu eta hautatzean ahaleginak egingo dira gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan kide anitzeko organoentzat xedatutakoa bete beharko du. Hala ere, Nekazaritza eta Elikagaigintzako Berrikuntza Foroak, hala badagokio, funtzionamendurako beharrezkotzat jotzen dituen barne-araubideko arauak onetsi ahalko ditu.

***Bigarrena***.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Gernika-Lumon, 2010eko ekainaren 8an.

Lehendakaria
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

d) Cuantos otros derechos sean inherentes a su condición de vocal.

***Artículo 9***.– Grupos de trabajo del Foro de Innovación Agraria y Alimentaria.

El pleno del Foro de Innovación Agraria y Alimentaria podrá crear grupos de trabajo en las materias que así lo requieran para el ejercicio de sus funciones. Las funciones de estos grupos de trabajo las determinará el pleno del Foro de Innovación Agraria y Alimentaria y, en todo caso, sus informes, ponencias o propuestas deberán ser ratificadas por el Pleno.

***Artículo 10***.– Nuevas tecnologías de la información y las comunicaciones.

El Foro de Innovación Agraria y Alimentaria promoverá, en los trabajos preparativos de las reuniones, la utilización de las nuevas tecnologías de la información y las comunicaciones

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En el nombramiento y designación de las personas que han de formar parte del Foro de la Innovación Agraria y Alimentaria se procurará una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres.

DISPOSICIÓN FINAL

***Primera***.– El Foro de Innovación Agraria y Alimentaria se regirá por lo dispuesto en materia de órganos colegiados en el capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. No obstante, el Foro de Innovación Agraria y Alimentaria podrá, en su caso, aprobar las normas de régimen interno que estime pertinentes para su funcionamiento.

***Segunda***.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Gernika-Lumo, a 8 de junio de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.